



IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Ipuinaren erabilpena eskolan: la coleccionista de palabras albuma [Hitzen Biltzailea albuma]

Itxaso Camarero Martín
icamarero004@ikasle.ehu.es

To cite this article:

Camarero, M. (2019). Ipuinaren erabilpena eskolan: la coleccionista de palabras albuma [Hitzen Biltzailea albuma]. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 22, 23-42. Retrieved from http://www.ehu.es/ikastorratza/22_alea/2.pdf

To link to this article:

http://www.ehu.es/ikastorratza/22_alea/2.pdf

Published online: 30 June 2018.

Ipuinaren erabilpena eskolan: la coleccionista de palabras albuma

[Hitzen Biltzailea albuma]

Itxaso Camarero Martín

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

icamarero004@ikasle.ehu.eus

Artikulu honetan, ipuinak hezkuntzan lantzearen garrantziaz hitz egin da. Izan ere, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan inplikazio positibo nabariak ditu bai garapen pertsonal, sozial, kognitibo baita hizkuntzan ere. Ideia hau zabaltzeko asmoz, "Hitzen Biltzailea" ipuinari buruzko analisisa eta itzulpena egin da. Material didaktiko honek, Haur Hezkuntzan komunikazioa eta oinarriko baloreak (errespetua eta partekatzea) lantzeko helburua du.

Ipuinak, Komunikazioa, Oinarriko baloreak, Haur Hezkuntza.

Este artículo subraya la importancia de los cuentos en la educación, por sus implicaciones positivas en el proceso de enseñanza- aprendizaje del alumnado tanto en el desarrollo personal, social, cognitivo y aprendizaje del lenguaje. Por ello, se ha planteado un análisis y traducción del cuento "La Coleccionista de Palabras". A través de él, se pueden trabajar en Educación Infantil la comunicación y los valores básicos (saber respetar y compartir).

Cuentos, Comunicación, Valores básicos, Educación Infantil.

In this article the importance of stories in education has been worked, taking into consideration its positive implications in the teaching-learning process in terms of students' personal, social, cognitive and language development. Thus, based on "La Coleccionista de Palabras" storybook, this work is directed to Pre-Primary Education (5-6 year olds) and it has been translated and analyzed. In this proposal, communication and basic values can be worked.

Stories, Communication, Basic values, Pre- Primary Education.

Sarrera

Hezkuntza arloan, ipuinek haurren garapenean atal oso garrantzitsua betetzen dute. Izatez, hauen bitartez munduarekin enpatia izateko, sormena garatzeko eta arazoak ebazteko aukera zabaltzen dielako. Gainera, ezagutza eta hausnarketarako baliabide bikaina da baita garapen pertsonal, sozial, kognitibo eta hizkuntzan duen eragin onuragarria ere. Beraz, ipuinak hizkuntza plastikoari, ahozkoari, ikusmenari, gorputzari, musikalarri,...lotuak dauden hainbat jarduera eskaintzen dituen bitartekari bihurtzen da. Laburbilduz, aspektu ezberdinak lan egiteko baliabide agortezina da.

Horregatik, ipuinak hezkuntzan landu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da gela baten barruan ipuinak egotea eta irakasleok hurrei irakurtzea, hauekin haurtxoek irakurketa eta inguratzen duten guztiarengan interesa mantentzen dutelako. Honetaz gain, ezin da ahaztu Haur Hezkuntza etaparik onena dela ipuinen bidez umeei letren edertasuna irakasteko. Hortaz, irakasleok lan egin beharko genukeen tresna da, haurrentzako altxor bat baita, ukitu edo entzutearekin besterik ez baitute gozatu dezaten. Garrantzitsua da honen aurrean irakasleek prestakuntza egokia izatea, gero eskuratu dituzten jakintza horiek guztiak ikasleengan transmititu ditzaten eta haurrak motibatu ditzaten.

Aurreko guztiagatik pentsa daiteke, ipuinak ikasleekin landuz gero, bai ikasle-ikasleen artean bai irakasle-ikasleen artean lotura estuagoa lortuko litzatekeela; eta horrek klaseko giro egoki bat ahalbidetuko lukeela. Horregatik, lortu nahi den helburua hauxe da: ipuinak eskoletan lantzeak daukan garrantzia sustatzea eta handiagotzea; eta komunikazioa eta baita baloreak lantzeko tresna izan daitekeela egiaztatzea. Ideia hau zabaltzeko asmoz, aukeratutako ipuinari buruzko analisisia aurrera eramango da.

Hortaz, artikulua hau hurrengo ataletan banatu da: Lehenengoz, marko teorikoa dago, zeinetan ipuinak zer diren, dituzten ezaugarriak eta hauek HHn duten garrantzia azpimarratu den. Honez gain, irakasle moduan ipuin bat egoki kontatzeko kontuan hartu beharreko atalak azaleratu dira. Ondoren, metodologian, *La Coleccionista de Palabras* albumaren itzulpena (lanketa propioa) eta analisisia (gazteleraz eta euskaraz aztertua) egin da; eta hori burututa, amaitzeko, ateratako emaitzak Haur Hezkuntzan martxan jartzeko ondorioez mintzatu da.

1. Marko teorikoa

Haur literaturako ipuinek etengabeko presentzia izan behar dute geletan. Cristina Gema-k (2010) adierazten duenez, ipuina, garaietan zehar ahaztezina izan da eta jendartean denboran zehar mantendu den izugarritzko generoa da. Beraz, haurrei istorioak kontatzearen garrantziaz jabetu behar gara. Hala ere, Ángeles eta Isabel Abelleira-k (2017) dioten moduan ez dugu ahaztu behar harrapatzen gaituzten istorioak izan behar direla, bukatu arte askatzen ez gaituzten horietakoak; baina, adin tarte hauetan, irakurzale autonomoak ez direnez, ezinbestekoa den beste eremu bat aintzat hartu behar dugu: istorio horiek nola kontatzen diren.

Arrazoi horrengatik, hezkuntzara bideratzen garen guztiok heziketa eta baliabide didaktiko horri buruz ikasteko beharra zabaldu behar da. Era horretan, haurrek irakurketan irmotasuna, sendotasuna eta konfiantza handiagoa duten iritzia lortzea ahalbidetzen delako. M^a Carmen Morón-ek (2010) ere iritzi honekin bat dator, izan ere, autore honek dioten moduan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgelak liburu eta umeen artean harreman edo kontaktu bizia eta gozatzeko plazera bermatzen duten lekuak izan beharko litezke.

Aurrekoari dagokionez, irakasleok zer egin beharko genuke: istorioak irakurri edo kontatu? Ángeles eta Isabel Abelleira-ren (2017) arabera, bi gauza hauek egin behar dira.

En función de lo que pretendamos; no hay porqué contraponer estas dos necesarias actividades. Los libros de literatura infantil son, en muchas ocasiones, el inicio de hermosas experiencias de vida en las aulas, a veces relacionadas con el arte, otras con el juego dramático, otras con la autoestima, con la alimentación, con la ciencia, con la música, y otras veces con nada más que con el placer de escuchar, es decir, la que va directamente de boca a oreja, tan solo con el recurso de nuestra voz (2017:112).

Baina, zer dira ipuinak? Zein garrantzia daukate? Zeintzuk dira hauen ezaugarriak? Nola kontatu eta landu ipuin bat? Irakasleok honen aurrean prestakuntza egokia eduki behar dugu? horrelako hainbat galdera etor litezke gure burura. Horrengatik, artikulu honen garapenean zehar hauek eta beste batzuk erantzungo ditugu.

1.1. Zer dira ipuinak?

Ipuinek, hezkuntza- funtzio garrantzitsua betetzen dute eta aldi berean, umeei irakurtzeko plazerari bultzatu diezaioke, gainera, haurren barruko garapena errazteko ezinbesteko tresna bihurtzen dira. Horregatik, beharrezkoa da ipuina zer esan nahi duen azaltzea, horretarako, jarraian autore ezberdinak proposatutako definizioak aipatzen dira:

Alde batetik, Cristina Gema-k (2010) istorioa edo ipuina, literatur herrikoien forma zaharrenetakoa dela dio, jatorriz ahoz transmititzen zena eta, geroago, idatziz. Termino hori sarritan erabiltzen da ipuin mota desberdinak izendatzeko, hala nola, istorio fantastikoa, haurrentzako istorioak edo istorio folklorikoa edo tradizionala.

Bestetik, Roberto Rosario-k (1984) iritzi hau azaldu du. Horren arabera, ez dago helduentzako istorio eta haurrentzako istorioaren arteko alde handirik. Izan ere, egon daitekeen ezberdintasun bakarra edukian eta erabiltzen den hiztegian izan daiteke. Honek adierazten duen moduan, ipuina edo istorioa kontatu daitekeen gertaeren narratiba da. Elementu egituratzaileak; hain zuzen, kontatzen diren gertaerak, esku hartzen duten pertsonaiak (pertsonak, animaliak, landareak edo objektuak) eta espazioa dira. Baina, azken finean, nahiz eta beste egile batzuk ados ez izan, ipuina eleberri laburra dela dio.

Laburbilduz, honako definizioa onartu genezake:

un cuento se trata de una creación literaria, oral o escrita, de extensión variable, en la que se relatan con un esquema más o menos común o arquetipo, vivencias fantásticas, experiencias, sueños, hechos reales,...es decir, lo fantástico y/o lo real, de forma intencionalmente artística, con dos objetivos fundamentales: divertir y enseñar. (Lourdes Prados & M^a Mercedes Molina, 2000:2).

Cristina Gema-k dioen arabera, istorioak edo ipuinak, literatura herrikoien forma zaharrenetarikoak dira. Eta hain zuzen ere, ipuinak kontatzeko ohitura hau belaunaldiz belaunaldi transmititu da. Arrazoia agerikoa da, istorioek onura asko ematen dizkigutelako, haurren konpresio eta komunikazio gaitasuna hobetzen dute, haien irudimena eta hiztegia areagotzen dute eta hurrek irakurketaren plazerera bultzatzen dituzte.

1.2. Ipuinaren atalak

Ohikoa da, eta oso ezaguna, tipikoa deitu dezakegu, ipuinaren barrena hiru atal banatzea. Hain zuzen, Natalia Martinez-ek (2011) zehazten duen moduan, hurrengoak:

- **Hasiera** edo planteamendua: Ipuinaren hasierako zatia da non garapenean zer gertatuko denaren oinarriak ezarri ohi diren.
- **Korapiloa** edo garapena: Zati honetan gatazkak sortzen dira eta gertaera garrantzitsuenak hemen ematen dira.
- **Amaiera** edo bukaera: Zati honetan, istorioak konponbidea du eta narrazioa amaitzen da.

Nahiz eta jakin banaketa sinplea dela, askotan oso erabilgarria da eskolan, batez ere, narratibaren lehen pausoak ematen ari diren irakurleentzat. Zehatzagoa izan zen Vladimir Propp "*Morfología del cuento*" (1928) idatzi zuenean. Bertan, ipuin mirengarriek 31 funtzio betetzen zituztela adierazi zuen. Funtzio hauek narrazioetan aurki ditzakegun ekintzen sistematizazio baten baliokideak dira. Era berean, aipatu den narrazio egituraren oinarriko eskemaren barruan bildu daitezke. Hona hemen 31 funtzioen adibide batzuk:

I. Urruntzea: familiako kide bat etxetik urruntzen da (**hasiera: I-VII**)

IX. Bitartekotza, trantsizioaren momentua: falta den albistea zabaldu egiten da, heroiari galdera bat egin eta abiatzea eskatzen diote (**korapiloa: VIII- VXIII**)

XXVI. Eginkizuna betetzea: zeregina gauzatzen da (**amaiera: XIX- XXXI**)

1.3. Zergatik dira garrantzitsuak?

Ipuinek mundu berriak asmatzera, hitzekin jolastera, pertsonaia berriak ezagutzera edo imajinatzen, esnatuta amestera, dibertitzera, pentsamendua modu sortzailean sustatzera laguntzen digute. Dударik gabe balio literario linguistiko eta pedagogiko bat dute; horrez gain, hainbat estrategia martxan jartzen dira ikasleekin erabiltzeko, haien hiztegia trebatzeko, irudimena eta bizitza-arauak hobeto ulertzea bilatuz. Balioen funtzionamenduan aplikatutako ideia berriak. Beraz, ipuina umeentzat aproposa da, abantaila ugari ematen baitizkie; hala nola:

a) Irakasle eta ikasleen arteko maitasun eta konfiantzazko komunikazioa sortzen laguntzen du

Yolanda Arrieta-k (2017) hurrengo iritzia du. Haur literaturak, umeekin tarte bat egoteko aukera ere zabaltzen digu: umea, heldua eta eskuartean daukagun fikzioa; eta hemen eta orain eragiteko espazioak sortuz. Era honetan, aurrean aipatu diren eremuen arteko elkarrekintzarako bidea irekitzen digu, intimitaterako, isiltasunerako, edertasunerako,...eta horrek guztiak harridura sortzen du, arreta, lilura....azken batean magia hitza aurkitzera daramatzana.

Hori dela eta, ipuinak komunikazioa sortzen du, adierazteko hitzak erabiltzeko gaitasuna, jakin-mina, gorputzaren kontrol orekatua, erritmoaren hurbilketa, soinuen sorkuntza, interpretaziorako jarrerak eta trebetasunak hautematea, irakurtzea ... Honi dagokionez, Adriana Carolina Martínez Chepe-k, Cinthia Tocto Tomapasca-k eta Lourdes Gisella Palacios Ladinese-k (2015) adierazi dute umeen ahozko adierazpenaren garapena lortzeko, ipuina, 4 urteko haurren hizkuntza hobetzeko tresna ezinbestekoa bihurtzen dela. Honi gehiturik, Delaunay-rentzat (1986) ipuinak honetan laguntzen digu:

El cuento abre a cada uno un universo distinto del suyo; invita a hacer viajes al pasado, o hacia lejanías que no conocen otros límites que los de la imaginación. (...). El cuento bajo todas sus formas, facilita la adquisición del desarrollo personal, social y del lenguaje. (1986:38)

b) Pentsamendu kritikoa, hiztegia aberasten eta sormena sustatzen laguntzen du

M^a Carmen Morón-en (2010) arabera, balorea hartzen duena garrantzia handia duten gaiak irakurzale txikiei aurkeztea da, izan ere, ipuinek modu dinamiko eta hurbil batean pentsamendu kritikoa eta hausnarketarako gaitasuna osatzen laguntzen diete; hala nola, denbora, laguntasuna, auto-estimua, gauza txikien balorea,....

Autore horrek ere baieztatzen digu, umeek, entzuten edo irakurtzen duten haur literaturatik, informazio ugari hartzen dutela bai historia, kultura edo zientzien inguruan. Horri esker, haurrek duten hiztegia aberasten dute eta haien kreatibitatea eta sormena bultzatzen die. Horregatik, umeentzat mito, legenda, fabula eta ipuin tradizional egokien herentzia berreskuratu behar dugu. Izan ere, historian zehar sortuak izan dira helburu batentzako eta balore izugarria dute norberaren identitatea osatzen laguntzen dutelako. Baina ezin dugu ahaztu, inteligentzia emozionalaren prestakuntzan ere eragin handia

dutela, eta honako hau, umearen garapen afektiborako gakoa dela. Hau dela eta, emozioa, Haur Literatura eusten duen oinarrietako bat da.

c) Aisia, lasaitasuna eta erosotasuna eskaintzen ditu

Cristina Gema-k (2010) baieztatzen digunez, lehen urteetatik haurrak bere irudimen egitura lortzeko laguntzen duen tresna bat behar du, sormena indartzeko. Tresna hori ipuina da. Haurraren heziketa pedagogiko eta didaktikoan funtsezko pieza da, entretenimendua, poza, dibertsioa eta lasaitasuna ematen dizkio, mundua eta bere pertsonaiak ezagutzeko aukera emanez. Eta nahiz eta hasieran oraindik irakurtzen ez jakin, haurra arretaz eta pozez hurbiltzen da liburuetara. Horregatik, hasierako fase honetan irakurketaren bultzada, sustapena eta garapena abiarazi behar da.

d) Memoria garatzen laguntzen du

Lourdes Prados eta M^a Mercedes Molina-k (2000) ere adierazten duten moduan ipuinak memoriaren garapena ahalbidetzen dute eta umearen sormenerako espiritua esnatzen duten instrumentuak dira. Izatez, errealitatearen aurrean, fantasiak, umeari aukera ematen dio ezberdina den mundu batean kokatzeko. Gainera, haurrak egunero bizi duen gertaeren eta errealitatearen egoera asko ulertu ahal izango ditu. Azken finean, istorioak bizitzarako liburua adierazten du eta bizitzako liburua da. Lehen aldiz gertatzen diren gertaerak ulertu eta ikustea ahalbidetzen du.

e) Plazera eragiten du eta norberaren ezagutzan laguntzen du

Adin goiztiarrean, ordea, batez ere plazera, auto-ezagutza eta umea inguratzen duen munduaren interpretazioa egiten laguntzera bideratuta egon beharko litezke. Funtzio hau betez gero, probabilitate handia baitago umeez hazten doazen heinean modu natural batetan Haur Literaturarako obrak irakurtzeko gustua garatzea. Entzutearen plazerak ziurrenik irakurle plazerera eramango du haurra. Labur esanda, irakurketaren ohitura sendo bat finkatzeko oinarriak sortzen joatea da.

Sonia León-ek (2009) bat dator aurrerago aipatu dugun egilearekin, izan ere, ipuinek irakurtzeko gustua izatera estimulatu dutela dio. Hala ere, onura gehiago

dakartza; hala nola, eskolaren eta ikasleen bizitzaren arteko erlazioa bultzatu, hizkuntzaren garapen eta jarrera psiko-afektibo positiboak izatera motibatu, sormenera lotuta joan, garapen afektiboa lagundu, umearengan erlaxazioa eta entretenimendua sortzen dien atmosfera sortu, garapen soziala bultzatu, baloreak transmititu, hiztegia handitu (bai bere aspektu komunikatiboan, estetikoan eta kreatiboan),... egiten du.

f) Hezkuntza balioak transmititzen ditu

Ignacio González-ek (2006) adierazten digun moduan, Haur Hezkuntzako irakasleen artean baliabide erabilienetako bat ipuina da, ikuspuntu bikoitza izanez. Alde batetik, balioen transmisioa duen tresnarik boteretsuenetako bat bihurtzen da, baita gaitasun didaktikoa eduki ere. Bestetik, bere jolas-izaerak gozatzeko tresna bihurtzen du, irudimena eta sormena indartuz.

Honi gehituta, Vanessa Candil-lentzat (2013) ipuinak pertsona gisa osatzen joateko zati garrantzitsu bat dira. Barruko sentimenduak eta pentsamenduak, haiek bizi diren ohiko "ingurune hurbilean" barneratzen laguntzen diete eta "irudimenezko" ingurune batean ere zeinetan amestu eta gauza berriak aurkitzen dituzten. Horrez gain, istorioa irakurtzea edo kontatzea inplizituki dauden hezkuntza baloreak transmititzea dakar berarekin, besteak beste, eskuzabaltasuna, adiskidetasuna, pazientzia, errespetua edo konpartitzen jakitea. Ros (2012) autoreak definitzen duen moduan, ipuinak literatur lan guztiak bezala hezigarriak dira. Haurrentzako literaturak, haurren kontzientziaren eraketan laguntzen dute, zentzu moralean, kognitiboan baita afektiboan ere.

Laburbilduz, ezin da zalantzan jarri haur literaturak dakartzan onurak eta irekitzen dituen leihoak, hurrei zein helduei aukera anitzak zabaltzen baitizkie. Horregatik, garrantzia handikoa da ipuinak gure bizitzan lekua izatea bai eskola barruan baita kanpoan ere; eta batez ere, familiek eta eskolek merezi duten aukera eskaintzea. Izatez, haurrentzako ipuinak dira irakurketa eta idazketaren errendimendua lortzeko motiborik garrantzitsuenak eta liburuen plazera sortu eta bultzatzeko bide eraginkorrenak ere. Gainera, ipuinei ageriko maitasuna izatea lortzen bada haurrek istorio berriak, protagonistak eta kondaira berriak ezagutu nahiko dituzte.

1.4. Irakaslearen rola

Literaturak haurrentzat duen garrantzia kontuan izatea komeni da. Izan ere, literaturak umeari mundua ulertzeko modu bat eskaintzen dio, baina, Yolanda Arrieta-k (2017) adierazten digun moduan ume txikiez mintzo garenean, literatura jaso ahal izateko, bitartekari bat behar da. Zentzu horretan, irakaslearen rola izugarri garrantzitsua da, eta presentzia itzela hartzen dute horren gorputzak eta, bereziki, ahotsak. Hortaz, haurrei transmititzeko, jokoan 4 elementu sartuko litezke: "zu, ni, gorputza eta ahotsa". Eta zergatik?

Lehenengo bi elementuei dagokienez, autore horrek esaten digu ahozko literatura pertsonaren lehenengo etxea dela, habia: zu eta ni, hementxe eta oraintxe, txikitik txikira, begitik begira, azaletik azalera. Intimitate-gunea. Txikitik txikirako distantzia laburra da oso eta abiadura txikia eskatzen du. Erantzunak jasotzeko eta jakintzat ezer ez emateko.

Hirugarren elementua garrantzi handikoa da: gorputza. Izan ere, hitza askoz ere errazago gogoratzen delako gorputz-adierazpen batekin edo keinu batekin lotuta dagoenean. Edozein kasutan, errepikapena adin guztietan erabiliko dugu, memoria lantzeko modu bat delako, eta memoriak beti dakarrelako irudimena. Horiek transmititzeko, dramatizazioak laguntzen du; eta horregatik, antzerkia baliabide moduan erabiltzea komeni da.

Azkeneko elementua, ahotsa da. Autore berak azpimarratzen digunez, ahotsa umearen lehen liburua da. Hor hasten da umea irakurtzen, heldua bitartekaria duela. Horregatik, garrantzi handikoa da ahotsaren aldeko aldarrikapena. Hitzak bizirik ez badauka, letra hutsa da, aseptikoa. Ahotsak ematen dio emozioa, pertzepzioa, irudia,...Eta horrek guztiak indarra hartzen du ume txikia aurrean dugunean, eta harekin elkarrekintzan, komunikatzen...hasten garenean. Ahotsaren bitartez, hitzaren edertasuna erakustea. Eta, zergatik ahotsa? Ahotsa baliabide organikoa delako, gorputzaren baliabide bat delako, eta umeak gorputzetik bizi duelako dena. Beraz, helduak, ahotsaren bitartez, umeari mundua interpretatzen laguntzen dio. Ahotsa tresna paregabea da, mundua izendatu ahala geure burua eta ingurua ezagutzeko. Ahotsa da habia, sehaska. Ahotsa da hizkuntzaren magala, motorra, emozioa. Ahotsaren bitartez hartzen duelako hitzak indarra.

Argi dago ipuin bat kontatzea ez dela irakurtzea soilik, sakonago sartu behar da, gehiago estutu, hau da, irribarreak, sorpresa, intriga, tentsioa eta zalantzazko aurpegiak jarri behar dira. Hori dela eta, ipuin kontalari ona izateko, irakasleok ahotsa ondo kudeatzen ikasi behar dugu. Honen bidez, ipuineko pertsonaia desberdinek interpretatu, bereizi eta bizia eman daiteke. Arreta erakartzeko eta suspentsioa sortzeko onomatopeiak (zas!, toc, toc!) erabil daitezke eta baita etenaldiak eta isiltasunak ere. Ipuinaren ulermenean arazorik ez izateko, ahozko argudio eta modulazio ona mantentzen ahalegindu behar da. Irrigarri geratzeko beldurrak galdu, keinuak egin eta mozorrotu haurrek gozatu dezaten. M^a Isabel Borda (2000) aurreko honekin ados dago, berak adierazten duen moduan ipuinaren erabilerak ez luke irakurketa soilean bakarrik mugatu behar. Istorioa, ikaslea entzungai soil bat bezala ez balitz moduan adierazi behar da, kontatzen den istorioaren barruan sartuta sentitzeko.

Bestetik, Aidan Chambers-ek (2013) adierazten du irakurleen gizartea nahi bada, gakoa lehen urteetan ozen irakurtzea dela, eta hauxe baieztatzen digu "idealmente, todos los niños deberían escuchar cada día algo de literatura leída en voz alta" (2013:77).

Laburbilduz, bitartekariak; hau da irakasleak, gidatzen du, esaten du, ahotsa jartzen du, hitzei esanahia ematen die....Eta jokoan sartzen da hor pertsonen aldartea, subjektibotasuna, pertzepzioa, interpretazioa, jabeakuntza,... Testuinguru horretan jarri, eta ekin egin behar da: hartu liburua, albuma, abestiak, poemak,...eta ekin. Izan ere, baliabide horiek hor daude, eskuragarri ditugu eta ez ditugu albo batera utzi behar.

2. Albuma: genero ilustratua

Honainoko ibilbidea egin ondoren, ipuinaren azterketa egiteko albuma aukeratu dugu, ipuinaren barneko kontakizunaren balioak argi uzten dituelako.

Ikerketa lan honetan, beraz, album ilustratua izan da baliatutako generoa, horregatik beraren ezaugarri bereizgarri batzuk aurkeztuko dira hurrenez hurren.

Silvia- Díaz-ek (2016) adierazten duenez, egun album ilustratua gero eta ezagunagoa da. Izatez, genero honek azkeneko urteotan, bai ekoizpenean bai erabileran, gorakada nabaria izan du. Horregatik, albumaz hitz egitean zer ulertzen dugun zehaztea ezinbestekoa da.

Autore askok, liburu mota hau genero gisa aitortu eta horren inguruko arrazoia eman dute. Rateau-k (2001) defendatzen du albumaren ezaugarri propioek genero bilakatzen dutela. Hori dela eta, lan honetan ere genero moduan definitu da albuma.

Horren inguruan, Shulevitz (1997) autore eta ilustratzaileak luze hitz egiten du, baieztatzen baitu albuma bere formatu bereziagatik eta testuaren eta irudiaren arteko erlaziotatik identifikagarria dela. Ildo beretik, Ramos-ek (2011) ere azpimarratu izan du album ilustratuen obretan, alderdi grafikoaren nagusitasuna ukazina dela; hau da, irudiak esperimentaziorako bidea irekitzen duela, testuaren, orrialdearen konposizioarekin eta bestelakoekin batera.

Aurreko guztia laburbiltzen duen definizioa, beraz, hurrengoa litzateke:

Lo que caracteriza a los álbumes es que utilizan códigos- la imagen y el texto- para contar su historia. Este recurso puede utilizarse con propósitos distintos, y la obra resultante puede dirigirse a lectores de diferentes edades (Teresa Colomer, 2005:41).

Ikusten denez, aipatutako kode testualaren eta bisualaren inguruko ideiaz gain, autore honek hartzailea ere kontutan hartzen du. Egia esan, adin gabeko literatura gisa definitu da askotan. Nolanahi ere, ezin da ahaztu album ilustratuak helduentzat zein haurrentzat aproposak izan daitezkeela.

Album ilustratua, arte-objektua gisa hartua bada ere, erabilera didaktikoa duen baliabidea ere izan daiteke. Hoster eta Lobato-k (2007) adierazi moduan, albuma, istorioak kontatzen eta emozioak transmititzen dituen produktu artistikoa izateaz gainera,

gaitasun literarioaren garapenean ere lagungarri izan daiteke, irakurle gaituak eta eraginkorrak prestatzeko material aparta baita.

Horregatik, album ilustratuak gelan erabiltzeko justifikatzen dituzten ezaugarri multzo batzuk dituzte, haurrentzat oso egokiak izan daitezkeenak, jarduera didaktikoaren esanahia dutenez kontu handiz ibili behar da planifikazioa egiterako orduan. Behar bezala burutzen badugu, haurrari aukera emango diogu munduan sartzeko, era honetan bere ezagutza zabaltzeko eta bere irudimena garatzeko, irakurketaren interesa piztuz.

3. Oinarri metodologikoa

Kasu honetan, etorkizuneko irakasle bezala, aukeratutako "La Coleccionista de Palabras" ipuinaren itzulpena eta analisisa egitea da. Izan ere, ipuin baten aukeraketa egokia egitea inportantea da, eta hau garatzeko haurren adina eta interesak kontuan hartzeaz gain, ipuinaren analisisa lantzeak lagundu egiten digu zehaztasun handiagoa izaten umeekin zer jorratu daitekeen jakiteko.

Hau jakinda, hona hemen "*la Coleccionista de Palabras*" ipuinari buruzko analisisa:

3.1. Aukeratutako ipuin albumaren analisisa: La Coleccionista de Palabras [Hitzen Biltzailea]

Sonja Wimmer, *La Coleccionista de Palabras* (2011) liburuaren autorea eta ilustratzailea da. Ipuin honek dituen ezaugarriak sakonago adieraziko dira; besteak beste, hurrengoak nabarmenduko dira:

a) Oinarrizko ezaugarriak

Ipuin honen protagonistak Luna (Ilargi) du izena, hitzak biltzeko zaletasuna duen neskatxa. Bere argia gustuko du eta dituen kilimekin barre egiten du. Baina, egun batean konturatzen da pixkanaka- pixkanaka hitz eder, bikain eta dibertigarri guztiak mundutik desagertzen ari direla, eta neskatxak erabakia hartzeko ordua heldu dela uste du.

Ipuinaren formatuari begiratuz albuma laukia da, azal gogorra du eta 32 orriz osatua dago. Ikus daitekeen moduan garrantzi handiena irudiei ematen zaie bi orrialde hartzen dituztelako, eta aldiz, letrari erreparatuz gero, oso letra gutxi agertzen da. Horrek, umeei ipuina ondo ulertzera eta interesa piztera laguntzen du. Teresa Colomer-en ustez

(2010), haurrentzako diren liburuek zenbait berezko material edo elementuak dituzte, "*La Coleccionista de Palabras*" ipuinaren kasuan hurrengoak dira:

- Tamaina: Formatuak dimentsio handia du, irakurlearen eta liburuaren arteko distantzia fisikoa ezartzera laguntzen du, eta ikuskizun baten izaera hartzen du. Pantaila bat balitz bezala irakurtzeko aukera eskaintzen digunez, esan daiteke taldean irakurtzeko liburua dela, eta horregatik esaten da ipuin hau haurrentzako irakurleei zuzentzen zaiela, helduen laguntza izanda; beharbada, lurrean eserita.
- Forma: Laukia da, azken hamarkadan hain ezaguna egin den forma. Kontzentrazio-ahalmen handiena testuan edo irudian agertzen da, beraz poema edo hizkuntza-jokoan edizioentzako egokia da. Hala ere, istorio bat kontatzeko monotonoa izan daiteke. Hori ekiditeko, orrialdearen erabilera orrialde bikoitzaren luzapenarekin batera egiten da, forma karratua laukizuzen horizontala bihurtuz.
- Orrialdea: Orrialde bikoitzek irakurketaren espazioa finkatzen dute. Hauen arteko banaketa ez da errespetatzen, orrialde baten irudia edo testua bestea hartzen baitu.

b) Ezaugarri literarioak

Orokorrean, literatura kontzeptua oralitate eremura eramanda, Jon Kortazar-ek (2000) adierazten duen moduan, zenbait formulen presentziak oinarria hartzen dute. Egia esateko, formula batzuk beste batzuk baino ugariagoak dira; besteak beste, errepikapena, paralelismoa, kontrajarpena, triplikazioa eta zenbakiekin eginiko formula. Ipuin honetan, ordea, batez ere hurrengo formulak ugaritzen dira: errepikapenak, harridura eta galdera markak, hiperboleak, konparazioak, sinestesia, epiteto eta prosopopeia.

- ***Lexikoa eta errepikapenak***

Hitzak duen magiaren inguruko poema bat da, positiboa denean duen ahalmenaz hain zuzen; eta adin guztietako irakurleei istorio zoragarri hau modu original eta dibertigarrian jarraitzeko gonbidatzen diena. Cristina Gema-k (2010) adierazten duenez 3 eta 5 urteko umeek murriztutako hizkuntza erabiltzen dute (hizkuntza aktiboa), baina maneiatzen dituzten hitz gehiago ulertu ditzakete (hizkuntza pasiboa).

Ipuinaren lexikoa orokorrean erraza, argia eta ulergarria izan arren, umeentzat hitz batzuk zailak izan daitezke; hala nola, senidetasun, tolerantzia edo erruki. Baina,

adibideak emateaz gain haien adinarentzako egokiak diren azalpenen bidez argituko dira. Gainera, ipuinean agertzen diren hitzak deskribapen eta txikigarri diren adjektiboen bitartez osatuta daude, zeintzuk maiztasun handiz, testuan tartekatzen diren; adibidez:

"Palabras mágicas, palabras deliciosas, palabras largas y cortas, palabras divertidas, palabras magnificas, palabras locas, palabritas, palabras curiosas,..." (4).

[Hitz magikoak, hitz goxoak, hitz luzeak eta laburrak, hitz dibertigarriak, hitz ederrak, hitz eroak, hitz txikiak, hitz bereziak,...].

- ***Harridura eta galdera markak***

Hala eta guztiz ere, harridura markak eta galderak daude, hauei esker haurrek arreta jarri eta ipuina irakurtzerakoan interesik ez galtzea dakar; izan ere, narratariorari dei egiteak irakurlearen interesa piztea dakar, interakzioa bilatzen ari baita. Honi esker, geldiuneak egitera bultzatzeaz gain (isiltasuna), haurrek erantzuteko aukera ere ematen du edota umeez ere zer gertatuko den imajinatu dezakete edo baita istorioa jarraitzeko aukera ere; esate baterako,

"¿Qué había pasado con ellas?" (5)

[Zer gertatu da haiekin?]

"¿De qué servía coleccionar algo, si no era para compartirlo?" (15)

[Zertarako balio du hitzak biltzea jendearekin banatzeko ez bada?]

"¡Oh no!;no quedaba ni una sola palabra!" (13).

[Oi ez! ez zen inolako hitzik geratzen!]

- ***Hiperboleak***

Hiperbolea, mezuari indarra emanaz nahita egiten den gehiegikerian oinarritzen den erretorikazko figura da. Bere helburua arreta deitzea da, transmititu nahi dena nabarmenduz eta adierazgarritasun handiagoa ematea. Hainbat autorek erabili dute; besteak beste, Federico Garcia Lorca-k, Miguel Hernández-ek,... Ipuin honetan zehar ere adibide batzuk ikus daitezke:

"Luna era una niña extraordinaria. **Vivía más arriba** que cualquier otra persona". (1)

[Ilargi neskatxa aparta zen. **Edozein pertsona baino gorago bizi zen**]

"Luna coleccionaba palabras de la misma manera que otras personas coleccionan sellos: palabras divertidas, que al **decirlas te hacen cosquillas en el paladar**, palabras tan bellas que hacen llorar y palabras amables que **acarician el alma**." (3)

[Ilargik hitzak biltzen zituen gainerako pertsonak zigiluak biltzen dituzten modu berean: Hitz dibertigarriak, **esatean kili-kiliak sortzen dituztenak** Negarrarazi egiten gaituzten hitz ederrak eta **bihotzera doazen hitz maitagarriak**]

"Y allí donde todos estaban demasiado ocupados para reír juntos y ciegos ante el milagro de la naturaleza, esparció las palabras más divertidas, locas y mágicas que poseía. Y **aquellas palabras hicieron cosquillas a la gente en su nariz, su lengua y sus oídos** (12).

[Eta elkarrekin barre egiteko lanpetuta eta naturaren mirakuluaren aurrean itsu zebiltzaten lekuetan, hitz misteriotsu, zituen hitz dibertigarrienak, eroak eta magikoak sakabanatu zituen. Eta **hitz horiek jendeari sudurrean, mihian eta belarrietan kilimak egin zizkien**]

- **Konparazioak**

Konparazioak bi kontzeptu, bi objektu, bi elementu edo bi errealitateen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ezartzea da. Horri esker, haurrak ulertu eta irudikatu egiten ditu. Azken finean, kontzeptu bat argitu edo plastikoki zer esan nahi dugun indartzen du; hau da, kontzeptu bat antzekotasun bat duen zerbaitekin erlazionatzea da. Ipuin honetan zehar, honako adibideak topa daitezke:

"Luna era una niña extraordinaria. **Vivía más arriba que cualquier otra persona**". (1)

[Ilargi neskatxa aparta zen. **Edozein pertsona baino gorago bizi zen**]

"Sin embargo vio que las personas **habían empezado a tirarse las letras las unas a las otras, como pelotas**. Inventaron nuevas palabras, se las regalaron, las compartieron y las dejaron volar de nuevo" (14)

[Baina, **jendeak hitzak pilotak balira elkarri bota zituen**. Hitz berriak asmatu zituzten, hauek oparitu, partekatu eta berriro hegan egiten utzi zituzten.]

- **Sinestesia**

Sinestesia zentzu ezberdinen sentsazioak nahasten dituen irudi erretorikoa da (entzumena, ikusmena, zaporea, usaina, ukimena) edo sentsazio horiek sentimenduekin

nahasten dituen da (tristura, poza, eta abar). Ipuin honetan aurkitutako adibidea hurrengo da:

"Palabras mágicas, **palabras deliciosas**, palabras largas y cortas, palabras divertidas, palabras magnificas, **palabras locas**, palabritas, palabras curiosas,..." (4).

[Hitz magikoak, **hitz goxoak**, hitz luzeak eta laburrak, hitz dibertigarriak, hitz ederrak, **hitz eroak**, hitz txikiak, hitz bereziak,...].

- ***Epitetoa***

Epiteto bat subjektuaren nolakotasunari adierazten dion adjektiboa da. Norbait edo zerbait karakterizatzeko edo sailkatzeko erabiltzen da, ezaugarri batzuk gehituz edo azpimarratuz. Ipuinean, adibidez, 11. orrialde bikoitzean ikus daiteke:

"Donde había personas solas y tristes, **tendió hilos de palabras cálidas**, que hablaban de amistad y de compasión" (11).

[Pertsona bakarti eta triste zeuden lekuetan, adiskidetasunaz eta errukiaz hitz egiten zuten **hitz beroak zabaldu zituen**]

- ***Prosopopeia***

Prosopopeia, gizakien portaera eta ezaugarriak izaki bizigabeei, animaliei edo kontzeptu abstraktuei egoztean datzan figura erretorikoa da, gehienetan pentsamendu figuren artean sailkatua. Pertsonifikazioa ere esaten zaio. Ipuinean, honako adibidea ikus daiteke:

"**Luna preguntó a los pájaros, a las nubes** y a los viajeros. Y todos contestaron lo mismo: Los hombres se están olvidando de las palabras bellas. Ya no les dan importancia. Están demasiado ocupados" (6)

[**Ilargi txoriei, hodeiei** eta bidaiariei **galdetu zien**. Eta denek berdina erantzun zioten: Gizonak hitz ederrak ahazten ari dira. Jada ez diote garrantzirik ematen. Oso lanpetuta daude.]

c) Ilustrazioak

Liburuan agertzen diren irudiak oso handiak dira, izugarritzko garrantzia hartzen dute. Colomerren (2010) arabera, haurrek album ilustratuen bidez ikusizko hizkuntza ikasten has daitezke: forma, testura, lerroa, erritmoa, kromatismoa, bolumena edo argia

irudikatzen koloreen erabilera ezberdina, konposizioa, prespektiba, etab. Horrela, bada, umeei horretan arreta jartzen laguntzen bada, ilustrazioak adierazteko aukera esanguratsuak ikas ditzakete.

La Coleccionista de Palabras ipuinean, testua irudiaren parte da; hau da, testuak eta irudiak zerbait esaten eta adierazten dute, funtzio linguistikoa eta ikonikoa dute, hurrenez hurren. Baina, helburu artistiko bati erantzuteko, nola esaten duen eta nola adierazten duen arreta jarri behar da, hau da, adierazpen literario eta plastikoen planoan. Testuaren letrak eremu ikonikoa hartzen dute eta funtzio plastikoa dute, hizkien formarekin jolasten duelako eta marrazki zehatz bat bilatzen antolatuta daudelako. Orrialdeetako testuaren kantitateak eta kokapenak, egileak bilatzen duen erritmoa betetzen dute eta irakurketa erraztu dezake. Testua are eta gutxiago izan, orduan eta garrantzi handiagoa hartzen du kalitate dramatiko edo poetikoak. Letra larriak ahotsaren bolumenarekin erlazionatzen dira eta letra etzana mezua indartzeko erabiltzen da.

d) Materiala

Istoria hau inprimatzeko harrizko papera erabili da, kareharrizko paper berritzailea, izaera material ugariena. Iragazgaitza da, ez ditu zuhaitzak mozten eta ez du ura, kloro edo produktu kimikorik behar. % 50 baino gehiagoko energia aurrezteko suposatzen du.

e) Balorea

Ipuin honek laguntasuna, errespetua, partekatzea... gisako baloreak sustatzera laguntzen du eta komunikazioa sortzen du, hitzak adierazteko erabilitako trebetasuna, positiboak diren hitzei buruzko jakin-mina.

4. Ondorioak

Azkenik, ondorio orokor gisa, azpimarratu behar da modu egokian komunikatzen ez badira, batzuetan, horrek errespetua galtzera eragin dezakeela. Horregatik, album honen bitartez umeei haien konkistaz gozatu, beste lagunak ezagutu, haien afektuak adierazten ikasi, gauza txikiak baloratzen jakin, jolastu eta gozatu dezaten sustatu daiteke. Era berean, hizkuntzaren garapena bultzatzea dakar, "*mihiarekin gimnasia*" eginez, hizkuntzari askatasuna emanez, deskribapen txikiak eta esaldi errazak eraikitzen hasiz eta

hitz berriak ikasiz eta erabiliz (hitz politak). Horrek ahozko, keinuzko eta idatzizko komunikazioa hobetzen lagundu diezaieke. Horregatik, "*Hitzen Biltzailea*" bezalako albumek, umeen memorian eta bihotzean aztarna utzi; eta aldi berean, liburu eta literatura maitasunaren sartzean lagundu diezaiekete.

Erreferentzia bibliografikoak

- Abelleira, Ángeles & Isabel (2017). *Los hilos de infantil: Échandole cuento a la vida*. Barcelona: Octaedro.
- Arrieta, Yolanda (2017). Zer ahozko baliabide ditu irakasleak eskura haur-literatura lantzeko? *Hik hasi aldizkaria*. <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20170905/zer-ahozko-baliabide-ditu-irakasleak-eskura-haur-literatura-lantzeko-tik> berreskuratua 2018/10/05ean
- Borda Crespo, Maria Isabel (2000). Estrategias de compresion lectora en los talleres de lectura de los cuentos infantiles. *REV- LYT*, 15, 51-59
- Chambers, Aidan (2013). *El ambiente de la lectura*. Mexico D.F: Fondo de cultura economica.
- Colomer, Teresa (2005). El album y el texto. In Muñoz J.I. - Tebar & M. C. Silvia- Díaz (Ed.), *El libro-album: Invención y evolución de un genero para niños*. Caracas: Banco del libro. 40-45
- Colomer, Teresa (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual (2ª edición ampliada)*. Madrid: Sintesis, S.A.
- Delaunay, Alice (1986). *La educación pre-escolar*. II. Alea, Madrid, España: Editorial Cincel.
- Gema Fernandez, Cristina (2010). El cuento como recurso didáctico. *Innovación y experiencias educativas*, 26, 1-9.
- González López, Ignacio (2006). El valor de los cuentos infantiles como recurso para trabajar la transversalidad de las aulas. *Campo Abierto*, 25 (1), 11-29.
- Hoster, Beatriz & Lobato, Maria Jose (2007). Iniciación a la competencia literaria y artística a través del álbum ilustrado. *Lenguaje y textos*, 26, 119-134.
- Kortazar, Jon (2000). *Euskal Literaturaren historia txikia: ahozkoa eta klasikoa*. Donostia: Erein.
- León González, Sonia. (2009). El cuento en Educación Infantil: un mundo de actividades. *Revista Digital para Profesionales de la Enseñanza*, (1), 1-7. <http://www.feandalucia.ccoo.es/indcontei.aspx?d=2800&s=5&ind=145-tik> berreskuratua 2018/10/05ean
- Martinez Chepe, A.C.; Tocto Tomapasca, C. & Palacios Ladines, L.G. (2015). La expresión oral en los niños y los cuentos. *Revista de Investigación y Cultura*, 4, 5.
- Martínez Urbano, Natalia (2011). El cuento como instrumento educativo. *Innovación y experiencias educativas*, 39, 1-8.

- Morón, M^a Carmen (2010). Los beneficios de la literatura infantil. *Temas para la educación. Federación de enseñanza de CC. OO.* (8), 1-6.
- Prados Giráldez, Lourdes & Molina Morena, M^a Mercedes (2000). *Cuento narrado o cuento leído en educación infantil: una experiencia.* Valencia: Congreso Mundial de Lecto-escritura.
- Propp, Vladimir (1998). *Morfología del cuento.* Adaptación de la cátedra. Método y materia. Madrid: Akal
- Ramos, A.M. (2011). Apontamentos para uma poética do álbum contempórâneo. In B. Roig, I. Soto & M. Neira (Koord.), *O álbum na literatura infantil e xuvenil (2000-2010).* Vigo: Edicións Xerais de Galicia. 13-40
- Rateau, Dominique. (2001). *Des livres d'images, pour tous les ages.* Toulouse: Eres.
- Ros, Esther. (2012). El cuento como herramienta socializadora de género (tesis doctoral, universidad de Sevilla).
- Rosario Vidal, Roberto (1984): *Literatura Infantil en educación inicial.* Lima: UNICEF.
- Shulevitz, Uri (1997). *Writing with pictures: How to write and illustrate children's books.* New York: Watson- Guphill Publications.
- Silvia-Díaz, María Cecilia (2016). La investigación en el libro-album. *Peonza: Revista de Literatura Infantil y Juvenil*, 119, 27-37
- Wimmer, Sonja (2011). *La coleccionista de palabras.* Madrid: Cuento de Luz S.L.